

8.17 BIZIKLETA-APARKALEKU SEGURUA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK

1.- Xedea. Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 2.1.h artikuluan eta, horren haritik, 43.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "bizikleta-aparkaleku segurua erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak".

2.- Zenbatekoa. Hauek izango dira zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak:

| ABONAMENDUA | MODALITATEA | 2022 |
|--------------------------|---|-------------------|
| MAX6 | Bizikleta hilabete natural batez aparkatzeko aukera ematen du, aparkalekutik hartu gabe — jarraian— gehienez 6 egunez utziz. | 6,12 euro hilean |
| MAX3 | Bizikleta hilabete natural batez aparkatzeko aukera ematen du, aparkalekutik hartu gabe — jarraian— gehienez 3 egunez utziz. | 3,06 euro hilean |
| Egunak gairiditza | Aparkatutako bizikletak —MAX6 eta MAX3 tarifek aukera ematen duten gehieneko aldia gairidituz gero— bertatik mugitu gabe egiten duen egun bakoitzeko. | 0,51 euro egunean |
| MAX1 | Bizikleta egun batez aparkatzeko aukera ematen du (24 orduz). Bizikleta bertatik mugitu gabe egiten hortik gorako egun bakoitzeko 1,02 euro egunean ordaindu beharko da. | 1,02 euro egunean |
| URTEKO EGOILIARRA | Bizikleta urte natural oso batez aparkatzeko aukera ematen du, egoiliarrentzako modalitate horretan egokitutako aparkaleku guztietan. | 73,45 euro urtean |

3.- Ordaintzera behartuak. Bizikleta-aparkaleku seguruak erabiltzen dituztenak egongo dira behartuta finkatutako prezio publikoa ordaintzera, edozein modalitate baliatzen dutelarik ere.

4.- Ordaintzeko obligazioa. Bizikleta-aparkaleku seguruak erabiltzen hastean sortzen da ordaintzeko obligazioa, edozein modalitate baliatzen delarik ere.

AZKEN XEDAPENA

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.